Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

# Lehiaren Euskal Agintaritza

# Autoridad Vasca de la Competencia

**Merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzen, bermatzen eta hobetzen ditugu**

Promovemos, garantizamos y mejoramos las condiciones de libre competencia y transparencia en el mercado

# Lehiaren Euskal Agintaritza

**Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA)** Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomoa da, erakunde- eta funtzio-autonomia du eta, EAEko lurralde-eremuan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez, merkatuko lehiaren eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea du helburu. Horretarako, honako arlo hauetako eskumenak ditu: zehapena, sustapena, aurkaratzea, irizpena zein kontsulta eta arbitrajea.

# Autoridad Vasca de la Competencia

La **Autoridad Vasca de la Competencia (AVC)** es un organismo autónomo del Gobierno Vasco, que goza de independencia orgánica y funcional, cuya misión consiste en promover, garantizar y mejorar las condiciones de competencia y transparencia en el mercado, respecto de las actividades económicas que se realizan en el ámbito territorial de la CAE, ejerciendo competencias sancionadoras; de promoción; impugnación; dictamen y consulta, y arbitraje.

# EGINKIZUNAK

**Lehiaren defentsa:**
LEAk 15/2007 Legea bete egiten dela zaintzen du, bertan honako hauxe debekatzen dela kontuan hartuta: lehia faltsutzen duten kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusua eta interes publikoan eragina duten egintza desleialak. Horretarako, zehapen-espedienteen instrukzioa egiteko eta ebazteko eginkizunak ditu.

**Lehiaren sustapena:**
LEAk merkatuetako lehia sustatu eta hobetzen laguntzen du, eta, horretarako, zehapenerako ez diren zenbait eginkizun dauzka esleituta; esate baterako, lehiaren arloko azterlanak eta ikerlanak egitea; zabalkunderako jardunaldiak, prestakuntza edo hitzaldiak antolatzea; arlo publikoari buruzko txostenak eta gomendioak egitea, laguntza publikoen arloa kontuan hartuta; eta arauketari buruzko txostenak egitea.

# FUNCIONES

**Defensa de la competencia:**
LEA/AVC vela por el cumplimiento de la Ley 15/2007, que prohíbe las conductas colusorias que falseen la competencia, los abusos de posición de dominio, así como los actos desleales que afecten al interés público. Para ello se ejercen las funciones de instrucción y resolución de expedientes sancionadores.

**Promoción de la competencia:**
LEA/AVC promueve y contribuye a mejorar la competencia en los mercados ejerciendo una serie de funciones no sancionadoras, como la realización de estudios y trabajos de investigación en materia de competencia; la organización de jornadas de difusión, formación o conferencias; la emisión de informes y recomendaciones sobre la actuación del sector público, incluyendo materia de ayudas públicas, así como la adopción de informes sobre regulación.



# EGINKIZUNAK

Era berean, LEAk lehiaren arloko organo aholku-emaile moduan jarduteko legezko agindua du. Hain zuzen ere, honako hauexek eskatu ahal izango diote aholkularitza: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Batzar Nagusiak, foru-aldundiak, udalak, lanbide-elkargoak, merkataritza-ganberak, enpresarien elkarteak, sindikatuak eta kontsumitzaileen zein erabiltzaileen erakundeak.

Horrez gain, LEAk arauketa onaren arloko eginkizunak ditu, eta, horren osagarri, lege-maila baino apalagoko xedapenak edo egintza administratiboak jurisdikzio eskudunaren aurrean **aurkaratzeko** gaitasuna ere badu, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.



# FUNCIONES

Asimismo, LEA/AVC tiene el mandato legal de actuar como órgano consultivo en cuestiones de competencia, en particular, puede ser consultada por el Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco, las Juntas Generales, las diputaciones forales, los ayuntamientos, los colegios profesionales, las cámaras de comercio y las organizaciones empresariales, sindicales y de personas consumidoras y usuarias.

Además, LEA/AVC ejerce funciones en materia de buena regulación, que se complementan con la capacidad de **impugnar** ante la jurisdicción competente los actos administrativos o disposiciones de rango inferior a la ley, cuando de ellos se deriven obstáculos al mantenimiento de una competencia efectiva en los mercados.

# Zer da lehia?

Lehia egoera bat da, eta, bertan, eragile ekonomikoek (enpresak eta kontsumitzaileak) benetako askatasuna dute, ondasunak zein zerbitzuak eskaintzeko eta nori nahiz nola erosiko dizkioten erabakitzeko.

- Merkatuen funtzionamendu eraginkorra eta lehiakorra merkatu-ekonomiaren oinarrizko printzipioa da, eta, horrez gain, beharrezko baldintza ere bada, gizarteari ahalik eta hazkuntza, enplegu eta ongizate maila handienak eskaintzeko. Onura horien lorpena, beti-beti funtsezkoa dena, modu berezian da kritikoa zein lehentasunezkoa gaur egungo egoera ekonomikoan.
- Nolanahi ere, egitate egiaztatua da lehiaren aurkakoak diren eta ordenamendu juridikoak debekatzen dituen jokabideak daudela; esate baterako, kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusuak, eta interes publikoan eragina duten egintza desleialengatik lehia askea faltsutzea.
- Errealitate horren ondorioz, herrialde garatu guztietan, gai, gardenak eta sinesgarriak diren lehiaren agintariek merkatuan jardun behar dute, gomendatzeko, ikuskatzeko, esku hartzeko eta asmoa kentzeko orduan dituzten eginkizunak independentziaz eta zehaztasunez administratu ahal izateko. Jarduketa hori, gainera, kontsumitzaileen, enpresen eta administrazio publikoaren beraren onurarako da.

# ¿Qué es la Competencia?

La competencia es la situación en la que los agentes económicos (empresas y personas consumidoras) tienen una efectiva libertad, tanto de ofrecer bienes y servicios como de elegir a quién y en qué condiciones los adquieren.

- El funcionamiento eficiente y competitivo de los mercados es un principio básico de la economía de mercado, y además es condición necesaria para facilitar a la sociedad los mayores niveles de crecimiento, empleo y bienestar posibles. La consecución de estos beneficios, siempre esencial, se presenta como particularmente crítica y prioritaria en la actual coyuntura económica.
- Sin embargo, es un hecho constatado la existencia de comportamientos anticompetitivos prohibidos por el ordenamiento jurídico, como son las conductas colusorias, el abuso de posición de dominio y el falseamiento de la libre competencia por actos desleales que afecten al interés público.
- Esta realidad exige, en todos los países desarrollados, la actuación en el mercado de autoridades de la competencia capaces, transparentes y creíbles que administren, con independencia y rigor, sus funciones de recomendación, supervisión, intervención y disuasión. Una actuación que redunda en beneficio de las personas consumidoras, las empresas y la propia Administración Pública.

# Onurak

**Lehia gizarte osoarentzat da onuragarria.**

- **Kontsumitzaileentzat**: lehia askea enpresen arteko lehiakortasun osasungarriaren onurarako da, bezero gehiago lortu nahian euren prezioak eta eskaintza egokitzen dituztenean. Hartara, kontsumitzaileek prezio merkeagoko produktuak aurkitzen dituzte, baita ondasunen zein zerbitzuen kalitate handiagoa eta aniztasun handiagoa ere, enpresek gero eta bereizkuntza-premia handiagoa dutelako.



- **Enpresentzat**: lehia askearen arabera, enpresa guztiek jokoaren arauak errespetatu eta baldintza berberetan parte hartzen dute. Lehia askeak produktibitatea handitu eta berrikuntza suspertzen duenez, ongizateak eta garapen ekonomikoak gora egiten dute.
- **Administrazio publikoentzat**: lehia askea zerbitzu publikoen onurarako ere bada, ondasun eta zerbitzu hobeak eta prezio merkeagoetan lortu daitezkeelako kontratazio publikorako prozesuetan.



# Beneficios

**La competencia beneficia al conjunto de la sociedad**

- Para las **Personas Consumidoras**: la libre competencia favorece una sana competitividad entre las empresas que ajustan sus precios y su oferta para lograr más clientes. Así, los consumidores encuentran productos a precios más bajos, una mayor calidad tanto de bienes como de servicios y una mayor variedad gracias a la creciente necesidad de diferenciación de las empresas.
- Para las **Empresas**: la libre competencia supone que todas las empresas respetan las reglas del juego y participan en igualdad de condiciones. La libre competencia aumenta la productividad e incentiva la innovación, lo que redunda en un mayor bienestar y desarrollo económico.
- Para las **Administraciones Públicas**: la libre competencia también beneficia a los servicios públicos, pudiendo obtener mejores bienes y servicios en los procesos de contratación pública a precios más reducidos.



# Lehiaren Defentsari buruzko Legea

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko **15/2007** Legea sistema baten premiari emandako erantzuna da, enpresek erabakiak askatasunez hartzeko prozesuan behar ez denean esku hartu gabe, tresna egokiak egon daitezen, merkatuko prozesuak ondo garatzen direla bermatzeko.

**Hona hemen debekatutako jokabideak**: kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusua eta egintza desleialen bidez lehia askea faltsutzea.

# Ley de defensa de la competencia

La Ley **15/2007**, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia es la respuesta a la necesidad de disponer de un sistema que, sin intervenir de forma innecesaria en la libre toma de decisiones empresariales, permita contar con los instrumentos adecuados para garantizar el buen funcionamiento de los procesos del mercado.

**Conductas prohibidas**, a saber, las conductas colusorias, el abuso de posición dominante y el falseamiento de la libre competencia por actos desleales.



# Lehia faltsutu dezaketen jokabideak, besteak beste:

- Enpresen artean merkatuak banatzeko edo prezioak finkatzeko akordioak.
- Enpresa-elkarteek prezioen inguruan emandako erabakiak edo gomendioak.
- Hitzartutako jardunbideak edo jakinaren gaineko jardunbide paraleloak.

# Conductas que pueden falsear la competencia, entre otras:

- Acuerdos de reparto de mercados entre empresas o de fijación de precios.
- Decisiones o recomendaciones de precios de asociaciones empresariales.
- Prácticas concertadas o conscientemente paralelas.



# Nagusitasunezko egoeraren abusua

Enpresa nagusitasunezko egoeran egongo da, bere lehiakideak, hornitzaileak eta kontsumitzaileak kontuan hartu gabe jarduteko boterea duenean. Legeak ez du nagusitasunezko egoera debekatzen, baina bere abusua bai, ordea, honelaxe gauzatu daiteke-eta:

- Bidezkoak ez diren prezioak edo merkataritza baldintzak ezartzea.
- Ekoizpena, banaketa edo garapen teknikoa mugatzea.
- Produktuak erosteko edo zerbitzuak eskaintzeko eskaerei inolako arrazoirik gabe ezetz esatea.
- Prestazio baliokideetarako baldintza ezberdinak ezartzea.
- Kontratuak hitzartu ahal izateko, prestazio osagarriak eskaintzeko baldintza jartzea.

# Egintza desleialen bidez lehia askea faltsutzea

Lehia desleialeko egintzek lehia bera faltsutu dezakete, interes publikoan eragina dutenean. Horrelako kasuetan, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen arau-haustetzat hartzen dira.

# Abuso de posición de dominio

Una empresa se encuentra en posición de dominio cuando tiene el poder de actuar sin tener en cuenta a sus competidores, proveedores y consumidores. La Ley no prohíbe la posición dominante, sí prohíbe su abuso que se puede materializar en:

- la imposición de precios o condiciones comerciales no equitativas.
- La limitación de la producción, la distribución o el desarrollo técnico.
- La negativa injustificada a satisfacer las demandas de compra de productos o de prestación de servicios.
- La aplicación de condiciones desiguales para prestaciones equivalentes.
- La subordinación de la celebración de contratos a la aceptación de prestaciones suplementarias.

# Falseamiento de la competencia por actos desleales

Los actos de competencia desleal pueden falsear la competencia cuando afecten al interés público. En estos casos, se tipifican como infracciones a la Ley de Defensa de la Competencia.

## Lehiaren agintariek eskuragarri dituzten tresnak

- Enpresei eta zuzendariei zehapen-isunak ezartzea.
- Isun hertsatzaileak ezartzea ebazpenetan zehaztutako betebeharrei dagokienez, baita laguntzeko betebeharra ez betetzeagatik ere.
- Sektore publikoarekin kontratatzea debekatuta dutela adieraztea.
- Kautelazko eta nahitaez betearazteko neurriak hartzea.
- Isunen ordainketa salbuestea edo haien zenbatekoak murriztea.
- Enpresei eta enpresa-elkarteei ikuskapenak egitea.
- Epaitegiei irizpideak zehazten laguntzea, lehiaren aurkako jokabideengatiko kalte-ordainak kuantifikatzeko.

## Herramientas a disposición de las autoridades de competencia

- Imposición de multas sancionadoras a empresas y directivos.
- Imposición de multas coercitivas respecto de las obligaciones establecidas en sus resoluciones, así como por incumplimiento del deber de colaboración.
- Declaración de prohibición de contratar con el sector público.
- Adopción de medidas cautelares y de ejecución forzosa.
- Exención del pago de multas o reducir sus importes.
- Realización de inspecciones a empresas y asociaciones de empresas.
- Colaboración con los tribunales en el establecimiento de criterios para la cuantificación de las indemnizaciones de daños por ilícitos de competencia.

# Errukitasun Programa

Kartel batean parte hartzen duten enpresek eta zuzendariek isuna oso-osorik salbuestea edo modu nabarian murriztea **lortu ahal izango dute, LEArekin lan egiten badute eta Errukitasun Programaren bitartez informazio garrantzitsua ematen badiote**. Beraz, kartelak antzemateko tresna izango da, baita horiek antzemateko moduko froga-elementuak eskaintzen dituzten enpresentzako irtenbidea ere, betiere, bultzatzaileak izan ez badira eta debekatutako jokabidean zuten partaidetza bertan behera utzi badute.



Isuna salbuesteko edo murrizteko eskabidearen aurkezpena **isilekotzat** joko da, eta pieza banandu berezia eratuko du eskabideko datu edo agiri guztiekin batera, eskatzailearen nortasuna barne. Guzti-guztiak isilekotzat hartuko dira.

Eskabidea **ahoz** egin ahal izango da, LEAko egoitzan bertan egindako aitorpen moduan; edo, idatziz, **errukitasun-eskabideren bidez**:



# Programa de Clemencia

Las empresas y directivos que participan en un cártel, pueden beneficiarse de la **exención total** o de una **reducción significativa de la multa**, si cooperan con la AVC aportando información relevante, a través del Programa de Clemencia que se configura así como una herramienta para la **detección** de cárteles y una **vía de salida** para las empresas que aporten elementos de prueba que posibiliten dicha detección, siempre que no hayan sido instigadoras y finalicen su participación en la conducta prohibida.

Se tratará como **confidencial** el hecho de la presentación de la solicitud de exención o reducción de la multa, formando pieza separada especial con todos los datos o documentos de la solicitud, incluida la identidad del solicitante, que se consideren confidenciales.

La solicitud puede realizarse bien de **manera verbal**, en forma de declaración en la sede de la AVC, o bien por escrito, a través del **Formulario de Solicitud de clemencia**:

- **Salaketaren aurkezpena**
- **Kontsultak eta komunikazioak**
- **Lankidetzarako postontzi anonimoa**

- Presentación de denuncia
- Consultas y Comunicaciones
- Buzón de colaboración anónimo

Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

**Ercilla 4, 2º - 48009 BILBAO**
**Tel. 944 032 800**
**www.competencia.euskadi.eus**
**infocompetencia@avdc.eus**